

Don Karlosek euskaldunetaz
baliatu nahi izan zuen tronuan
esertzeko.



*Don Karlosek euskaldunetaz baliatu nahi izan zuen tronuan esertzeko.



Don Karlosek *euskaldunez* baliatu nahi izan zuen tronuan esertzeko.



Erabil ezazu “-EZ” kasu-marka, instrumental mugatu plurala adierazteko:

- gure seme-alab**ez**...
- bi begi**ez**...
- hark esandako gezurr**ez**...
- gobernuaren lege**ez**...

Eta ez:

- *gure seme-alab*etaz*...
- *bi begi*etaz*...
- *hark esandako gezurr*etaz*...
- *gobernuaren lege*etaz*...



- Azkar doa lanera, pozik, bekokitik darizkion izerdi-anpulu**ez** arduratu gabe.
- Ezin balia zitekeen esku**ez**.
- Asiatik hurbil zeuden uharte**ez** jabetuak ziren.
- Gogora zaitez azterturiko arau**ez**.
- Ez zen konturatu kalte**ez**.
- Bizi naizeino oroituko naiz nire herriko adiskide**ez**.
- Herrian ezagutu genituen bi neska**ez** hitz egin dugu.




Mugagabea adierazteko, “-EZ” edo “-Z” baliatu behar dugu, izena kontsonantez ala bokalez bukatzen den:

- hainbat gezurr**ez**...
- zenbait mutil**ez**...
- hiru seme**z**...
- bi begi**z**...

Eta ez:

- *hainbat gezurr**etaz**...
- *zenbait mutil**etaz**...
- *hiru seme**taz**...
- *bi begi**taz**...



- Bi arazo**z** arduratuko gara.
- Hainbat teoria**z** balia gaitezke.
- Zenbait herri**z** jabetu ziren.
- Herrian ezagutu zituen bi neska**z** hitz egin dugu.
- Liburuan adierazitako zenbait gezurr**ez** jardungo dugu.



Honako kasu hauetan, aldiz, zilegi dugu “-(E)TAZ” kasu- marka erabiltzea:

● Pertsona-izenordainekin:

nitaz, hitaz, gutaz, zutaz, zuetaz...

● Erakusleekin:

honetaz, horretaz, hartaz, hauetaz, horietaz, haietaz...

● Galdetzaileekin:

zertaz, nortaz, zeinetaz (zeinez ere bai)...

● Izenordain mugagabeekin:

zerbaitetaz (zerbaitez ere bai), ezertaz, deusetaz (deusez ere bai)...



- **Hitaz** gogoratzen ninduan.
- Nehor ez zen **gutaz** axolatzen.
- Errazkin irakaslea arduratu zen batik bat gai **horretaz**.
- Ez zuen berehala konprenitu **nortaz** ari nintzen.
- Aski ohi da **zerbaitetaz** jabetzea, kolpetik haren baieztagarri sorta bat atzemateko.
- Ez da **ezertaz** konturatzen.
- Sendatu zenean, ez zen **deusetaz** oroitzen.

